

Aretxabaletako EA21 udalbatzarrean aurkeztuko diren proposamenak eta konpromisoak

1.PROPOSAMENA: LH 1. maila

Proposamena: Uraren inguruko **udaleku bat egitea** proposatzen dugu.

Konpromisoa: *Jendea animatuko dugu bertara joateko.*

2.PROPOSAMENA: LH 2. maila

Proposamena: Herrian apurtuta dauden **tuberiak eta iturriak konpontzea** proposatzen dugu.

Konpromisoa: *Tuberiak apurtuta badaude abisatzea.*

3.PROPOSAMENA: LH 3. eta DBH 2. mailak

Proposamena: **Ibaira edo lurrera zaborra ez botatzea** eta ibaira ur zikinik ez botatzea. Ez bota janaria komunitate edo fregaderatik ere (LH 3). **Ibaian dagoen zikinkeria garbitzea** da gure proposamen nagusia. Errekan honako zabor motak daude: plastikoa, beira... Errekan dagoen zikinkeria itsasora joaten da. Gehiago zaindu behar da (DBH 2).

Konpromisoa: *Guk ez dugu erreka edo kalera zaborrik botako(LH 3). Guk hartzen dugun konpromisoa da, ez botatzea zaborrik ibaira eta garbi mantentzea (DBH 2).*

4.PROPOSAMENA: LH 4. maila

Proposamena: **Lantegiei** ibaira zikinkeriarik ez botatzeko esatea, ezta kutsadura edo kerik ere. Bestetik, **lantegien** isurketak saihestea eta ibai ertzetatik urrun daitezen egitea.

Konpromisoa: *Lantegikoei kutsadura murrizteko eta gauzak eskuz egiteko esango diegu.*

5.PROPOSAMENA: LH 5. eta DBH 1. mailak

Proposamena: Gure proposamena **kanpaina batzuk** jartzea da, jendea kontzientziatzeko eta ur gutxiago gastatzeko (LH 5). **Sentsibilizazio kanpainak** ibaiaren garrantzia eta egoeraz kontzientziatzeko (DBH 1).

Konpromisoa: *Ura gutxiago gastatzen saiatuko gara, bainatu beharrean dutxatu egingo gara. Komuneko bonba ere beharrezkoa denean bakarrik botako dugu (LH 5). Guk, kanpaina horretan parte hartzeko konpromisoa hartzen dugu, baita hitz egindakoa besteei kontatzekoa ere (DBH 1).*

6.PROPOSAMENA: LH 6. maila

Proposamena: Etxeetan eta iturrietan ur gutxiago gastatzea eta Aretxabaletako **iturrietan difusorea** jartzea.

Konpromisoa: *Ur gutxiago gastatuko dugu, adibidez, hortzak garbitzerakoan ez dugu txorrota irekita utziko.*

7.PROPOSAMENA: DBH 3. maila

Proposamena: Eraikuntzak edo parkeak, **ibai ertzean ez eraikitzea**, bertatik zikinkeria asko jausten delako.

Konpromisoa: *Parkeetatik eta eraikuntzetatik ez bota zaborra ibaira.*

8.PROPOSAMENA: DBH 4. maila

Proposamena: **Ibar basoa berreskuratzea**, landareak landatzea. Ideia hau garatuz, gure herriko ibaia kanalizatuta dagoenez, ibaiaren inguruan egon beharko zena ez dago. Honen ondorioz, erreka ekosistema gutxitu egin da eta hori dela eta, landareak landatuz gero, lehengo ekosistemara itzuliko litzateke.

Konpromisoa: *Udaletxeak antolatutako taldeak sare sozialetatik zabaldu. Kanpainetan parte hartu. Bertako landaretza bultzatu.*

